

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sortzaileen Klubak Iruñan egingo du urteko batzarra

Mila bat profesionalak parte hartuko dute sormena sustatzea helburu duen biltzar honetan

Viernes, 01 de junio de 2012

Sortzaileen Klubak Baluartean egingo du 2013. urtean "C Eguna"-z ezagutzen den urteko batzarra. Juan Luis Sánchez de Muniáin Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak prentsaurrean aurkeztu du gaur Baluartek eta Sortzaileen Klubak erdietsitako akordio biltzar garrantzitsu hau datozen hiru urteetan Iruñan ospatzeko.



Batzarreran aurkezpenaren une bat.

Sortzaileez gain, komunikazio arloan lan egiten duten profesionalak parte hartu ohi dute bilera honetan. Bere helburua sormena sustatzea eta joera berriak antzematea da.

Kontseilariak adierazi duenez, Baluarte Fundazioa "Buelta eman nahi diogu" kanpainara atxiki da. Foru Gobernuak eta Nafarroako enpresari talde batek sustatu dute kanpaina krisi ekonomikoa gainditzeko asmoarekin ekimenak eta ahaleginak batzeko.

Ekitaldian izan dira Ezequiel Triviño Sortzaileen Klubeko lehendakaria, Javier Lacunza Baluarteko zuzendari kudeatzailea, Rafael Moreno enpresaria eta María Caballero zinegotzia.

Sortzaileen Kluba irabazi asmorik gabeko elkarte da, Espainian sormenaren kalitatea hobetzeko lan egiten duena eta heziketa eta prestakuntzaren bidez sektoreko profesionalen arteko harremanak sendotu nahi dituena. 500 bazkide inguru ditu, komunikazioaren arlokoak eta sortzaileekin batera lan egiten duten profesionalak, besteak beste, argazkilariak, errealizadoreak, programatzaileak eta diseinatzaileak.

Sortzaileen Klubak bere sorreratik ospatzen du C Eguna. Urteroko saioa da. Bertan urteko azterketa egin ohi da eta komunikazioaren arloko ideia onenak saritzen dira.

C Egunean, gainera, euren interesekoak diren gaien inguruan eztabaidatu eta hausnartzen dute eta komunikazioarekin zerikusia duten nobedadeak ezagutzera ematen dituen sormenaren inguruko azoka

burutzen da.

Prestakuntza lanak

Sortzaileen Klubaren beste lehentasunetarikoa bat prestakuntza da. "Sortzaileen Klubeko Akademia"-n profesionalen, ikasleen eta iragarleentzako ikastaroak eskaintzen dira.

Hitzaldiak, ikastaroak, tailerrak, mintegiak eta solasaldiak antolatzen ditu maiz sormenarekin zerikusia duten gai zehatzetan edota sormenarekin harremana duten beste hainbat esparrutan (argazkilaritza, diseinu grafikoa, animazioa...).

2002. urtetik, iragarleentzako ikastaroak ere eskaintzen ditu eta Versus lehiaketa antolatzen du, publizitate arloan talentu berriak antzematen laguntzen duena.

Hilabetero bilerak antolatzen ditu Madrilen eta Bartzelonan, prestakuntza eta taldekako lanak egiteko, eta 2008. urtetik A Eguna ospatzen du komunikazioa hobetzeko asmoarekin iragarle eta sortzeileen arteko hausnarketa bultzatzeko.